

# HERRI ITUNAREKIN DUGUN KONPROMISOA DEFINITZEKO IBILBIDEA



## Testuingurua aztertzea. Globaletik tokikora.

**Zer aurki dezakezu** dokumentu honetan:

- Beijingen egindako Emakumearen IV. Konferentziaren **alderdi nagusiak** laburbiltzen dituen testua.
- **Nola sortu** zen eta Nazio Batuen Generation Equality kanpainaren/ekimenaren **helburuak** laburbiltzen dituen testua.
- Herri Itunaren **garapen prozesua** laburbiltzen duen testua.
- Ezinbesteko **laguntza materialak**.
- Elkarrizketarako **galderak**.
- Herri Itunaren testuinguruari buruz **gehiago jakiteko materiala**.

 **BERDINTASUNAREN ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZEN ALDEKO EUSKADIKO ITUNA TESTUINGURUAN JARTZEA**

### **MUNDUKO IV KONFERENTZIA**

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta diskriminazioak egiturazkoak direla eta gizarte guztietan onartuta daudela eta, Munduko Konferentziak antolatzen dira, **agenda orokor komun baten bidez, egoera horiei eusten dieten botere harremanak eraldatu eta genero berdintasunerantz eraginkortasunez aurrera egin ahal izateko.**

Munduko Konferentziak Nazio Batuek antolatzen dituzte, eta mundu osoan gehien kezkatzen duten **gaietan** zentratzen dute beren lana, **berdintasunari, garapenari eta bakeari** lehentasuna emanez. Emakumeari buruzko lau

Mundu Konferentzia izan dira: Mexiko (1975), Kopenhage (1980), Nairobi (1985) eta Beijing edo Pekin (1995).

Hitzaldi guztietan bi gune daude: ofiziala edo instituzionala, non **Nazio Batuen** parte diren herrialdeetako ordezkariak parte hartzen duten, eta Foro Alternatiboa, aldi berean egiten dena. Foro alternatibo horretan Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKEek) parte hartzen dute, gizarte zibilaren ezagutza ematen dutenak eta Konferentzian hizpide diren gaietan eragitea bilatzen dutenak.



Iturria: NBE/Milton Grant

**Emakumeen Munduko IV. Konferentziak** emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko munduko itun politiko berri bat ekarri zuen, eta inflexio puntua izan da berdintasun politikak garatzeko maila guztietan (nazioartean, estatuan eta autonomia erkidegoan). Konferentzia horretan munduko hainbat herrialdeetako 189 ordezkari hartu zuten parte, eta kontinente guztietako 30.000 emakume eta neskatok parte hartu zuten Huairou hirian egin zen Foro Alternatiboan, behatzaile gisa. Horietatik **40 emakume Euskadiko emakume elkarteen ordezkari gisa joan ziren**. Konferentzia, berez, prozesu bat izan zen, eta gertatu zen une historikoan kokatu behar da; izan ere, posizionamendu desberdinak egon ziren, batzuk oso fundamentalistak, eta beharrezkoa izan zen 1993tik eztabaida eta artikulazio lan bat egitea Konferentziaren aurretik.

**IV. Konferentziaren emaitza Adierazpena eta Beijingeko Ekintza Plataforma** dira. Programa horrek helburu eta neurriak ditu, eta gobernuek elkarrekin konpromisoa hartu zuten emakumeen eskubideak garatzeko eta sendotzeko bidean aurrera egiteko munduan. Adierazpena eta Plataforma nazioarteko tresna garrantzitsuenetako bat izan dira herrialde guztietan berdintasun politiken garapenari buruz aholkatzeko eta egindako aurrerapenei buruzko kontu ematea sustatzeko.

**Ekintza Plataformak** 12 jarduera eremu edo esparru garrantzitsutan jasotzen ditu konpromisoak, non benetako berdintasuna lortzeko eragin handiagoa behar zela uste zen: pobrezia, hezkuntza eta trebakuntza, osasuna, emakumeen aurkako indarkeria, gatazka armatuak, ekonomia, boterea eta erabakiak hartzea, berdintasunerako mekanismo instituzionalak, giza eskubideak, komunikabideak, baliabide naturalak eta ingurumena eta neskatoen eskubideak. Halaber, erabaki zen emakumeen eta neskatoen ahalduz zuzen laguntzeko beharra eta berdintasunak politika publiko osoan txertatua izan behar zuela, mainstreaming edo genero zeharkakotasun izenez ezagutzen dena. Berdintasun eraginkorra lortzeko bi baldintza horiek indarra hartu zuten IV. Konferentzian.



**Adierazpenean eta Ekintza Plataforman** jasotako agendak, konpromiso gisa formulatuak, izaera loteslerik ez badu ere, gaur egun indarrean jarraitzen du, nahiz eta dagoeneko bi hamarkada baino gehiago igaro diren. Beijinggo Ekintza Plataforma ezarri zenetik, bost urtean behin berrikuspenak eta ebaluazioak egin dira, Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen (CSW) bilkuren esparruan.



**CSW genero berdintasuna eta emakumeen ahalduz zuzen sustatzeko Nazio Batuen gobernuarteko berriazko organo nagusia da.** 2020an, CSWren 64. saioak, IV. Konferentzia ospatzeari eta berrikusteari buruzkoak, adierazpen politiko bat onartu zuen, Beijingen 1995ean hartutako konpromisoak berresteko, eta horiek aplikatzen jarraitzeko erabakia hartu zuen.

*Iturria: UN Women*

## GENERATION EQUALITY KANPAINA

Emakumeen IV. Konferentziaz urteak igaro diren arren, 189 herrialdeek Beijingen hartutako konpromisoak ez dute ekarri horiek betetzeko beharrezkoak diren lege, politika eta programen finantzaketa edo inplementazioa.



Aurrerapenak izan dira, noski, baina aldaketak oso motelak dira. Horregatik, 2020an, **NBE Emakumeak** erakundeak emakumeen eskubideen aldeko belaunaldi berriak bildu zituen genero berdintasunaren defendatzaileekin eta



duela bi hamarkada baino gehiago Beijingeko Ekintza Plataforma sortzeko ezinbestekoak izan ziren pertsonekin. **Berdintasun Belaunaldia Foroa eta honako kanpaina hau jarri ziren abian: Emakumeen eskubideen eta berdintasunezko etorkizunaren alde.**

Berdintasun Belaunaldia Foroa, NBE Emakumeak erakundeak deitua eta Frantzia eta Mexikoko gobernuek gidatua, gizarte zibilarekin eta gazteriarekin elkartuta egin zen, 2021eko martxoan eta ekainean, eta ekintzaileak, feministak, gazteak eta aliatuak batzea ahalbidetu zuen, berdintasuna COVID osteko agendaren erdigunean egon zedin. Horrela, bost urteko bideari hasiera eman zitzaion genero berdintasunaren alorrean ekintza anbiziotsuak abiarazteko eta ezartzeko maila globalean, genero berdintasunaren eta **Ekintza Globalerako koalizioen** aldeko mugimendu boteretsu eta iraunkorra bultzatzeko xedez.

Ekintza Globalerako koalizio horiek azelerazio globaleko plan bat prestatu zuten, genero berdintasuna indartzen duten **funtssezko 6 gairi** buruzkoa:



**Genero indarkeria**



**Justizia eta eskubide ekonomikoak**



**Gorputzaren gaineko autonomia, Osasuna eta sexu eta ugalketa eskubideak**



**Klimaren justiziarako ekintza feminista**




**Genero berdintasunerako teknologia eta berrikuntza**



**Mugimendu eta lidergo feministak**

Plan horrekin aliantzak sortzen ari dira, eta Gobernuak, erakunde feministak, emakumeak eta gazteak, nazioarteko erakundeak, fundazioak eta enpresak biltzen ari dira, aldaketak sortzeko. Kanpaina horretako aliatuek beren konpromisoen eta aurrerapenen berri emango dute, **NBE Emakumeak** erakundeak, besteak beste, Ekintzarako Koalizioek emakumeen eta neskatuen bizitzan duten **eragin kolektiboa neurtu** ahal izateko.

2023ko irailaren 17an, NBE Emakumeak erakundeak **Generation Equalityren tarteko ekitaldi** bat antolatu zuen, genero-berdintasuna bizkortzeko agenda ausarta ebaluatu, bultzatu eta hazteko. Biler horretan, herrialdeek lortutako aurrerapenak aztertu zituzten, eta honako hau berretsi zuten:



- Alderdi interesdun anitzen arteko **elkartasun eta lankidetzaren eredu** funtzionatzen ari da, lankidetzaren aukera berriak, elkarteak, esperientzien trukea eta jardunbide egokiak errazten ari delako, eta sektoreen arteko eta alderdi interesdunen arteko aliantza sendoak sortu dituzte, printzipio partekatuetan oinarrituta.
- **Funts berriak** mobilizatzen eta emaitza iraultzaileak lortzen ari da konpromiso politikoetan, programatikoetan eta sustapenekoetan, baita lehentasun partekatuen inguruko ekintza kolektiboen bidez ere.
- **Gazteen parte-hartzea indartu** behar dugu, finantza konpromisoei buruzko txostenak gardenagoak egin behar ditugu, dibertsitate geografikoa sustatu behar dugu eta generoari buruzko datuetan dauden hutsunak bete, lortutako helburuak gainbegiratzeko.

## **BERDINTASUNAREN ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZEN ALDEKO HERRI ITUNA**

Euskadik, alor horretako nazioarteko esparruarekin bat eginda beti, Beijingo adierazpenaren eta ekintza-plataformaren 25. urteurrenaren ospakizunarekin



bat egitea erabaki zuen, eta **2020an Euskadiko emakumeei aintzatespen publikoa egin zien, Emakunderekin batera 1995eko Mundu Konferentzian parte hartu baitzuten.**

Gainera, 2021ean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Emakunderen bitartez, Generation Equality ekimenaren markoa baliatu nahi izan zuen, berdintasunarekiko



konpromisoan beste urrats bat emateko eta *Berdintasunaren eta Emakumeen kontrako Indarkeriarik Gabeko Bizitzen aldeko Herri Ituna* abian jartzeko.

Horrela, berdintasuna inork atzean geratu ezin duen herrialde baten erronka dela dioen premisaren pean, 2021eko apirilaren 26an gonbidapena egin zitzaion euskal gizarte osoari Generation Equality Kanpainaren esparruan **parte hartzeko elkarrizketa prozesu** batean parte har zezan.

Egindako prozesuak **garapen metodologiko garrantzitsua** ekarri zuen eta 2021eko apirila eta iraila bitartean garatutako **esperientzia pilotu bat martxan** jarri zen. 8 lan-saio egin ziren, konpromisoak hartzea helburu zutenak eta eragin handia lortu zutenak. Esperientzia erreferentzia eta pizgarri izan zen partaidetza-prozesu horrekin bat egin nahi izan zuten hainbat erakunderentzat, eta Berdintasunaren eta Emakumeen kontrako Indarkeriarik Gabeko Bizitzen aldeko Herri Ituna 2022- 2026 sortu zen.





## EZINBESTEKO MATERIALAK

IV. Konferentziari buruzko elkarrizketari ekiteko eta haren indarraldia ulertzeko, honako erreferentzia material hauek proposatzen dira:

- **Marina Subirats Martoriri elkarrizketa, Nazio Batuen Emakumeen Munduko IV. Konferentzian parte hartu izanari buruz**

Marina Subirats Martorik, Emakumearen Institutuko zuzendari gisa (1993-1996), Espainiako Gobernuak ordezkatu zuen, eta Europako Batzordearen bozeramailea izan zen IV. Konferentzian; gainera, Espainiako Ordezkaritzaren koordinatzailea izan zen. Bideo dibulgatzaile eta pedagogiko honetan, Konferentzia egin aurreko prozesua, bertaratutako ordezkartzen arteko gatazka edo desadostasuna eragin zuten gai nagusiak eta lorpenak azaltzen dira. Gainera, Konferentzian egindako proposamenek gaur egungo testuinguruan duten indarrari buruzko gogoeta egin du. Elkarrizketa hau proiektu horretarako bakarrik egin zen.

- **Adierazpena eta Beijingo Ekintza Plataforma**

IV. Konferentzia ezagutzeko ezinbestekoa da Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma irakurtzea. Bere hedadura dela eta, agian errazagoa izango zaizu berrikuspina NBE Emakumeak erakundearen «Adierazpena eta Beijingeko Ekintza Plataformak 20 urte bete dituzte» txostenarekin lantzea edo osatzea. Han laburbilduta jasotzen dira Adierazpena eta Ekintza Plataforma aplikatu diren 20 urteen azterketa eta ebaluazioa, genero-berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta emakumeen eta neskatuen Giza Eskubideak lortzeko ikasgaiak identifikatzeko baliagarriak izan direnak.

*Adierazpena eta Plataforma*

*«Adierazpenak eta ekintza plataformak 20 urte bete dituzte»*

- **IV. Emakumeei buruzko Goi-bileran izan ziren emakumeen testigantzak**

Emakundek egindako bideo horretan, 1995ean Beijingera joan ziren euskal emakumeen esperientzia gertutik ezagutuko duzu.

- **NBE Emakumeen Generation Equality Kanpainari buruzko informazioa.**
- **Global Generation Equality Azelerazio Plana**
- **Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko Herri Itunari buruzko informazioa**



## GALDERA SORTA, DOKUMENTAZIO LAGUNGARRIA IRAKURRI ONDOREN EZTABAIDA BIDERATZEKO

**Galdera** batzuk egin ditugu lantaldearen 2. saioan egin dezakezen **elkarrizketa kolektiboa bideratzeko**:

- Zein izan da IV. Konferentziaren garrantzia, munduan eta Euskadin emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiteko?
- Zer aurrerapen zehatz identifikatzen dituzu berdintasunaren arloan Euskadin, zure ustez IV. Konferentziarekin zerikusia dutenak?
- Gogoeta horrek lagundu dizu IV. Konferentziari buruz gehiago jakiten?
- Zergatik da garrantzitsua belaunaldi gazteenak genero berdintasunaren lorpenean inplikatzeko? Generation Equalityren indarguneetako bat dela uste duzu?
- Zure ustez, kanpainak eta Generation Equality Foroak aukera eman al dute gaur egun genero berdintasunean azkarrago aurrera egiteko beharra kokatzeko?
- Zer suposatuko du Euskadin berdintasunak aurrera egin dezan Berdintasunaren eta Emakumeen kontrako Indarkeriarik Gabeko Bizitzen aldeko Ituna (2022- 2026) bezalako herrialde konpromisoa izateak?



## ORAINDIK GEHIAGO JAKIN NAHI BADUZU...

- [Pekin Euskadin. Euskaldunak Pekinen. Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia](#)
- [Zer ekarri die Pekingo Konferentziak emakumeei?](#)
- [Pertsonala politikoa denean: Emakumeen Nazio Batuen IV. Konferentzia](#)
- [Beijingo Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren aplikazioa eta Batzar Nagusiaren ezohiko hogeita hirugarren bilkura-aldiko emaitzak aztertzea eta ebaluatzea](#)
- [Atzera begirako begirada: Duela 20 urte, Emakumeen Munduko IV. Konferentzian izan ziren](#)
- [Kezka bereziko 12 eremu](#)



- Espainiako Gobernuaren Adierazpen Politikoa, Emakumeen Munduko IV. Konferentziaren 25. urteurrena dela eta (Beijing +25)
- Espainiaren txosten nazionala Beijing +25, Beijing +25 2019ko maiatzean berrikusteko
- Berdintasun Belaunaldi Foroari buruzko informazioa, emaitzak, zuzendaritza eta kudeaketa
- 2021eko martxoaren 29tik 31ra Mexikon egindako Berdintasun Belaunaldi Foroaren emaitzak eta informazioa
- 2021eko ekainaren 30etik uztailaren 2ra Parisen egindako Berdintasun Belaunaldi Foroaren emaitzak eta informazioa
- Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri Itunaren dosierra
- Berdintasunaren eta indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri Itunaren aurkezpena